# VITORIA-GASTEIZKO ODONATUEN KONTSERBAZIO PROGRAMAREN DATUAK ORNITHORA IGOTZEKO PROTOKOLOA

## AURKIBIDEA


1. Web orrialderako sarrera.......................................................................................2
2. Erabiltzailearen erregistroa...................................................................................2
3. Pasahitza aldatu.....................................................................................................3
4. Behaketak sartu.....................................................................................................4
5. Norberaren behaketak kontsultatzeko..................................................................6
6. Edozein parte hartzaileren behaketak kontsultatzeko..........................................6




**Argazkia: Isabel Garnika**

Con la colaboración de:


GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE CIENCIA E INNOVACIÓN
FECYT
FUNDACIÓN ESPAÑOLA PARA LA CIENCIA Y LA TECNOLOGÍA
Centro de Estudios Ambientales
CEA
Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

## 1. Web orrialderako sarrera

**URL-an hurrengo helbidea sartu behar da: [https://www.ornitho.eus/](https://www.ornitho.eus/)**

## 2. Erabiltzailearen erregistroa

Web orrialdean kontu bat sortzeko, 1. Irudian ikus daitekeen morez inguratu eta handitutako atalean dagoen "**Registrarse**" –n klik egin behar da (gorriz borobilduta).




*1. Irudia.* Kontu bat sortu Ornithoko hasiera orrialdean.

Orduan, pantailan **bete beharreko inskripzio formulario bat agertuko da** (1. Irudia). Bertan, izen-abizenak, helbidea eta korreo elektronikoa eskatuko dira.

***NOTA*: Formularioak web orrialdera igotzen diren behaketak anonimoak izateko aukera ematen du, behatzailearen izena ezin ikusiz. Datuak plataformatik deskargatuko direnez, parte hartzailearen izena ikustea beharrezkoa da. Beraz, EZ AUKERATU BEHAKETA ANONIMOAK "OBSERVACIONES ANÓNIMAS".**

Web orrialdeak idatzitako helbide elektronikoaren arabera sortuko du erabiltzailearen izena. Behin erabiltzailea sortu dela, **web orrialdeak emandakohelbidera pasahitza bidaliko du.**




*2. Irudia*. Ornithon kontu bat sortzeko inskripziorako formularioa.

## 3. Pasahitza aldatu

Web orrialdeak bidalitako pasahitza aldatzea posible da. Horretarako, Ornithon **saioa hasi** behar da, zure korreo elektronikoa eta helbidera bidalitako pasahitza erabiliz.

Ezker aldeko barra “**Mi cuenta**” izeneko ataleko “**correo electrónico y contraseña**” atalean (3. Irudia) klik egin behar da. Hau aukeratu ostean, pasahitza zaharra sartu eta aukeratu den berriarekin aldatu behar da.




*3. Irudia*. Pasahitza aldatzeko sekzioa.

## 4. Behaketak sartu




*4. Irudia*. Behaketak sartzeko atala.

Behaketa bat naturako aurkikuntza baten zer, non eta noiz-a da. Ornithok informazio hau gordetzeko lekua eskaintzen du, testu, argazki eta etiketekin batera.

Behaketa bat gehitzeko ezkerreko barrako "**Participar**" ataleko "**Introducir observaciones**" sakatu behar da (4. Irudia).

Sakatu ostean, agertzen den mapan dagokizun puntua aukeratu behar da. Klik egitean, etiketa bat agertzen da eta "**Añadir observaciones a esta localidad**" aukeratu behar da. Momento horretan behaketak sartzeko pantaila agertzen da (5. Irudia) eta jarraitu beharreko pausu zehatzak hurrengoak dira:

1- Laginketa egin deneko **data aukeratu** (5. Irudian berdez inguraturik).

2- Garrantzitsua da **talde faunistikoa aukeratzea**, hau da, **odonatuak**, burruntziaren irudian klik eginez (5. Irudian laranjaz inguraturik).

3- Datua sartzeko **espeziearen izena idatzi** behar da. **Eskuineko zabalgarrian izen zuzena hautatzeko aukera** egongo da (5. Irudian urdinez inguraturik).

4-Ondoren, detektatutako **espezie horren banakoen kopuru totala** gehitu behar da (5. Irudian morez inguraturik), "**conteo exacto"** aukeran kopuru zehatza jakinez gero eta **"estimación"** aukeran kopuruaren gutxi gorabeherako estimazioa egin behar izanez gero.

***OHARRA*:** Aurkitzen ditugun odonatu espezie guztiak apuntatu behar dira, positiboak nahiz negatiboak. Beraz, laginketak burutzean beti data eta tokiak apuntatuko ditugu.

**LAGINKETA NEGATIBO BAT BALDIN BADA, HAU DA, EZ BADA EZER AURKITU, GERTAKIZUN HAU IGOTZEA BEHARREZKOA DA. HURRENGO ERARA EGINGO DA:**
***ANAX IMPERATOR*, "CONTEO EXACTO 0".**
Honela, laginketa negatibo bat gordeko da, ondorengo analisietarako garrantzitsua izanik. 5. irudian laginketa negatibo baten adibidea aurkitu dezakegu.

5- **Ugalketa mailaren inguruko informazioa** ezagutuz gero (ikus landa-gida) "**Comentario**" atalean gehitu behar da, landa-gidan agertzen diren kategoriak kontutan hartuz. Baita ere testua idatz daiteke, nahi izanez gero, daturen bat eman nahi bada. Atal honetan, behatzailearen izena idaztea eskertuko genuke, datuen tratamendua errazteko helburuarekin (5. Irudian larrosaz inguraturik).

6-Amaitzeko "**Siguiente**" botoian sakatu behar da (5. Irudian gorriz inguraturik). Honek lokalitate eta data berean behaketa gehiago gehitzeko aukera emango du.




5. *Irudia.* Behaketa igotzerakoan agertzen den pantaila.

## 5. Norberaren behaketak kontsultatzeko

Norberaren behaketen bilaketa egiteko ezkerreko barrako lehenengo aukeran, “**Consultar**” –en, “**Todas mis observaciones**” aukeratu behar da (6. Irudia). Bertan klik egitean, talde faunistikoa aukeratu behar da eta konektatutako erabiltzailearen behaketa guztiak agertuko dira.




*6. Irudia*. Erabiltzailearen behaketak kontsultatzeko pantaila.

## 6. Edozein parte hartzaileren behaketak kontsultatzeko

Parte hartzaile guztien behaketak, gune batekoak, data batekoak,… ikusteko atal berean, “**Consultar**” –en, “**Consultas avanzadas**” aukeratu behar da (7. Irudia). Behin aukeratuta eta talde faunisitikoan klik eginda, filtro ezberdinak aplikatu daitezke bilaketa pertsonalizatu bat gauzatzeko: behaketa daten tarteak, espezieak, lokalitateak, eta beste batzuk.




*7. Irudia*. Edozein behaketa kontsultatzeko pantaila.